



Nombre Apellido 1 Apellido 2
Calle/Kalea Nombre, N – piso, letra
NNNNN-Municipio, TH



(01)95012345678903(10)L93903(37)220

Jaun/andre hori: Izena

Jakinarazten dizut, 2019ko abenduaren 31n elektrizitateko bonu sozialaren onuradun izateagatik, 2020ko gizarte bonu termikoaren onuradun zarela.

Gizarte Bonu Termikoa zuzeneko laguntza bat da, berokuntza, ur bero sanitarioa edo sukaldea bezalako erabilera termikoen energia-horniduraren gastuak konpentsatzeko, eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio ordaintzea.

Dagokion laguntza XXXX eurokoa da. Laguntza ordaintzeko, ordainketa bakarra egingo da ES12 xxxxx xxxx xx xxxxxxxx banku-kontuan.

Zure datuak zuzenak badira, ez duzu ezer egin behar, abonua automatikoki jasoko baituzu banku-kontuan. Hala ere, ordainketa aurreratu ahal izango dugu kontu-zenbakiarekin ados zaudela jakinarazten badiguzu. Horretarako, edozein gailu elektronikotatik (telefono mugikorra, tableta, ordenagailua) eskura dezakezu inprimaki elektronikoa, helbide honetan: [https:// www.euskadi.eus/servicios/111251](https://www.euskadi.eus/servicios/111251). Inprimaki horretan zure identifikatzailea (NAN/AIZ) eta BST-2020-NNNNN erreferentzia-kodea sartu behar dituzu.

Banku-kontua aldatu behar baduzu, 10 egun baliouduneko epean aldatu beharko duzu, gutun hau jakinarazten duzunetik zenbatzen hasita. Horretarako, formulario elektronikoa bete ahal izango duzu helbide honetan: [https:// www.euskadi.eus/servicios/111251](https://www.euskadi.eus/servicios/111251). Era berean, inprimaki elektronikoki hori erabiltzeak ordainketa aurreratzea ahalbidetuko du.

Aurrez aurre egin nahi baduzu, gutun honekin batera jasotako banku-kontuaren komunikazio-inprimakia bete eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan (goizeko 8etatik arratsaldeko 7: 30etara bitartean irekita), udaletxeetan edo posta-bulegoan aurkeztu ahal izango duzu.

Laguntzari uko egin nahi izanez gero, 10 egun baliouduneko epean egin beharko du, gutun hau jakinarazten denetik aurrera. Horretarako, gutunarekin batera jasotako uko egiteko inprimakia bete beharko du, eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan (goizeko 8etatik arratsaldeko 7: 30etara irekita), udaletxeetan edo posta-bulegoan aurkeztu, edo, elektronikoki, [https:// www.euskadi.eus/servicios/111251](https://www.euskadi.eus/servicios/111251) helbidean.

Banku-kontua aldatzeko eta uko egiteko inprimakiak Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren atarian daude eskuragarri, helbide honetan: [https:// www.euskadi.eus/servicios/111251](https://www.euskadi.eus/servicios/111251).

Maria Antonia Olabarrieta Ibarrodo
Directora de Servicios Sociales
Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales